

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

3470

EBAZPENA, 2023ko uztailaren 4koa, Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez iragartzen baita noiz jarriko den Gurenet atarian 2023ko uztailaren 3ko Ebazpena, Ertzaintzako lanpostuak merezimendu orokorraren lehiaketa-sistemaren bidez betetzeko prozeduran emana (C250).

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2022ko abenduaren 5eko Ebazpenaren hirugarren ebazpen-zatian ezarritakoarekin bat etorritik –ebazpen horren bidez, Ertzaintzako karrerako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeko deialdia onartu eta argitaratzen da–, eta Segurtasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuak ematen dizkidan eskumenak baliatuz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Argitara ematea 2023ko uztailaren 3an jarri dela Segurtasun Sailaren Gurenet atarian Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2023ko uztailaren 3ko Ebazpena. Ebazpen horren bidez esleitzen dira berariazko merezimendu orokorren lehiaketaren bidez bete beharreko lanpostuak, 2022ko abenduaren 5eko Ebazpenaren bitartez deitutako lanpostuak behin betiko betetzeko prozeduran (C250).

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 4a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,
MIREN GOITIA GABIOLA.